

TXANOTXOREN SASKIA



ZENTZUZ KONTSUMITU CONSUME CON SENTIDO

kontsumo kontziente eta arduratsua, bidezko merkataritza eta elikadura subiranotasuna gertuko aukera praktiko bezala bultzatzen dituen garapenerako hezkuntza proiektu bat da. Gurekin elkarlanean dauden erakundeak, bidezkoagoa, jasangarriagoa eta ekitatiboagoa den gizarte baten eraikuntzan laguntzen digute eta horretarako esperientzia desberdinak zabaldu eta ezagutzak sortzeko ahalmena dute. Honako hau, gaurko eta lehengo, hemengo eta hango emakumeen bitartez, euren ikuspegi eta sentipenen bitartez, gure kontsumoaren ondorioak ezagutzeko gonbidapen bat da.

Proiektua:

ZENTZUZ KONTSUMITU

CONSUME CON SENTIDO

www.consumoresponsable.info

Laguntzen du:

Vitoria-Gasteizko Udala.


Marrazkiak eta maketazioa:

Jone Zugazaga. www.jonezugazaga.com

2011ko urtarrila



Sorkuntza komunerako lizentzia irekia



Txanogorritxo asko izan dira...

Bazen gure Txanogorritxo gasteiztar hau izuuugarri pinpirina.



Bere ama beti lanpeturik dago, hara eta hona presaka doala.
"Lanaldi hirukoitza" izeneko gaitza du,
eta amonaren urtebetetzeaz gogoratzea galarazten dio.

HARA!
Amonaren urteak dira!
ENE!
Baduzu zer jan hozkaïluan!
Banoaa!!



Eta bere hozkailua beteta zegoen... janari ontziratuekin, "eskeleton" barra energetikoekin, eta azken belaunaldiko beste janari batzuekin.

Eta zer jango dut
nik gaur?
Umm...



Txanotxo Merkatal Gune handira joan zen jateko zerbait eta amonarentzako opari bat erostera. Han etengabe lan egiten zuten eta gutxitan irribarre egiten zuten pertsona batzuk ezagutu zituen.... Makinen antzera!




Txanotxo etengabe zebilen korridoreen artean, aurkitu ezin zituen gauza batzuen bila, Otso atsegina hurbildu zitzaion arte.



NEUK, lagunduko dīzut!
KONTSUMITU
dezagun... neska polit
horī... Aaauuuuu!

Otsoa nahikoa trebea zen Txanotxori pentsarazteko guztia lortuko zuela. Publizitatea zen haren armarik ahaltuena.



ZURI esker NI existitzen naiz. Beraz, jarraitu niri pentsatu gabe, txiki...

Zer atsegina den gizon hau, baina nolako aho handia...

Eta Txanotxo tranpan erori zen, eta EROSI ETA EROSI ibili zen. Horrela, aurrez pentsatuta zituen baino askoz gauza gehiago erosi zituen. Otsoaren arabera "zoriontsuago" izateko "beharko" zituen eta.



Autoa hondatu zen! Eta... arreta guztia Otsoaren aholkuetan jarri zuenez, amonarentzako oparia ahaztu zuen. Horregatik, bifidusak dituzten jogurt batzuk eramatea erabaki zuen, "super-ahaltsuak" direla esaten dute eta.

Ai, ama! Gainera hau...
uff! Oparia ahaztu zaizt, gero!!



Txanotxo oinez joan zen amonaren etxeraino eta horrela landako hotsak, Ama Lurrarenak... hainbat sekretu... entzun eta gogoratu ahal zituen.



Amona Arabako lurretako nekazaria da, munduan asko bezala.
Adeitasunezko seinale hori eskertu zion, baina bilobari benetako
"bifidusak" non dauden erakutsi zion.



Amonak badaki animaliekin, lurrarekin, urarekin, airearekin hitz egiten... Eta badakizki askoz gauza gehiago, nahiz eta munduko historia kontatu zutenei emakumeen jakinduria aipatzea ahaztu zitzaien.




Hemendik ateratzen
ditut nik neure
"defentsak pizteko"
behar ditudanak.

Arabako Haziak
Semillas de Álava



Arabar nekazari hark bazuen bera bezalako lagun asko. Ainhoak, kooperatibakoak, egun hartan Stevia landare bat partekatu zuen. Guztien onurarako ezaugarri asko dituen landare bat da...



Landare hau azukrea bezalako da... Eta betikoek haren jabe egin nahi dute!

Horrela aurre egiten diete Ama Lurraren aberastasunez bidegabe jabetzen diren multinazionalei! Amonak eta haren adiskideek haziak partekatzen dituzte, eta badakiten guztia... eta jakingo dutena!



Aminetu saharar auzokidearekin ere bai. Berak bere lurreko bidezko merkataritzako tea ekarri ohi du, bai eta poztasuna eta bere herriaren jakintzak ere... Trukea egiten dute!



Tori.
Erleen ezta da...
Ummm...
Zer gertatuko zaie???

Uff! Nolako aldea bizimodu batetik bestera! Txanotxo benetan garrantzitsuak ziren gauza asko ulertzen hasia zen... eta Otsoari ihes egin zion... behingoz!



¡LARGO!
ALDE!



Amonak arropa konpondu ohi zuen. Txanotxori ez zitzaion sekula bururatu amaren arropa berrerabiltzea... Zergatik ez? Ezin hobeto geratu da eta!



Amona jakintsuak haziak ere oparitu zizkion Txanotxori, beste toki batzuetan erein zitzan...



Haziak biziā dira,
eta biziā
Ama Lurrarena da!

Tralarin tralaran...! Txanotxok baditu haziak saskian! Orain badaki partekatzera nora joan.



Mmmm... goxo-goxoa eta bidezkoa pertsona guztientzat, Hegoaldeko zein Iparraldekoentzat, emakume eta gizonentzat, eta Ama Lurrarentzat! Elikadura Eskubide bat delako, eta ez negozio bat!

UummmMMMMM!!!

Baratzetik etxera patata
bidaïari, arrautza eta
baratxuriarekin,
den-dena bertako janari!



**HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, HALAXE IZANGO
DA AURRERANTZEAN!**

Gurekin
animatzen?



Bazen behin Gasteizen Txanotxu. Bazen bere ama, hirukoitz jardunaldiagatik ez zuena denbora ezertarako. Bazen Apirilaren 22a, Ama Lurraren eguna eta amonaren urtebetzea. Bazen Kaberna, publizitate faltsuko baso bat. Bazen kontsumoaren otsoa. Bazen amonaren jakintza. Bazen amonaren lagun eta aliatua. Bazen kooperatiba bat non elikadura subiranotasuna eta bidezko merkataritza Txanotxoren saskian bildu ziren.



Laguntzen du:

